



## Covid-19ren eragina eta euskal ekonomia: zer esan dezakegu gaur egun



Martxoak zartada garrantzitsua ekarri du bai euskal gizartearen eta, oro har, munduaren martxan, gure agertokian covid-19 pandemia agertu zenetik, eta horren ondorioz, alarma-egoera aplikatu zenetik, hilaren 15ean. Alde batetik bai pertsonen osasunean eta baita ere osasun-sisteman izan duen eraginaz haratago, kezka nagusia egoera honek izango duen eragin ekonomikoan jartzen du arreta.

Lehenengo ekintza pertsonak babestea izan da, eta, horren ondorioz, jarduera ekonomiko ugari itxi dira partzialki edo guztiz (batez ere, ostalaritza, elikagaiez kanpoko merkataritza eta pertsonen arreta ematen dieten zerbitzu gehienak) eta/edo urrutiko lan-modalitateak sustatu dira posible den kasuetan, jarduerari eusten laguntzeko.

Guzti hau kontutan izanik, **jarduera ekonomikoan izango duen inpaktua** garrantzitsutzat jotzen da. Bizkaiko Metalaren Federazioak bere bazkideei egindako inkesta batean ondorioztatzen den bezala, ia enpresa guztietan izan du eragina (neurri handiagoan ala txikiagoak), izan ere pandemiak euren funtzionamendua aldatzera behartu ditu, eta erabaki garrantzitsuak hartu behar izan dituzte, besteak beste, telelana martxan jarri, lanpostuetan segurtasun neurri berriak eta enpresaren jarduera normalaren jarraipenari buruzko ziurgabetasuna (hornidura-kateen etetea, bezeroen eskariaren geldiera, nazioarteko merkatuen ezegonkortasuna, etab.)

Illo horretan, eta oro har, covid-19ren lehen inpaktua erakundeek eta pertsonen beren eguneroko jarduera ziurgabetasun testuinguru batera egokitzeko duten gaitasunerako proba bat izaten ari da, bezeroekin eta hornitzaileekin dituzten konpromisoei eustea helburu izanik, enpleguari eustea eta hauen sareen gaitasuna eta segurtasuna urrunetik lanean (aldi berean) diharduten pertsonen kolektibo zabalak kudeatzerako orduan.

Egunak aurrera egin ahala, erakunde eta instituzio ugari hasi dira baloratzen pandemiaren eta aplikatutako konfinamendu sozialeko neurrien eragin agregatua zein izango den eta epe labur eta ertainean hazkunde ekonomikoa zenbateraino konprometituko duen.

Lehenik eta behin esan, nolabaiteko adostasuna dagoela egoeraren berezitasunari dagokionez eta oraindik ez dagoela datu objektiborik eragin hori neurtzeko (Espainiako Bankua, INSEE); beraz, eskura dauden modelizazio-sistemei buruzko iragarpenak edo proiektzioak egitea baino gehiago, aurrera eramatea interesa duten simulazio-ariketak dira, eta horietan, emaitzetan asmatzea aplikatzen diren irtenbideen eta agenteen, enpresen eta kontsumitzaileen portaeraren arabera izango da, Ceprede, Funcas eta Fedeak egindako ariketetan adierazten direnak.

Hausnarketa horiek, nazioarteko erakundeek (ELGA, NDF, INSEE) egindakoez gain, covid-19ren eragin ekonomikoaren neurria baldintzatzen duten bi aspektu aipatzen dituzte: alde batetik, euste-fasearen iraupena (hamabost eguneko edo hilabete bateko edo biko berrogeialdiekin) eta haren ondorio ekonomikoak; bestetik, krisitik irteteko fasean gertatuko den errebotea, jarduera-sektore bakoitzean erregistratutako narriadura-mailaren eta gizarte bakoitzeko egitura ekonomikoan duen pisuaren arabera izango dena, eta abian jarri diren neurri fiskalen, monetarioen eta finantzarioen edo etorkizunean martxan jarriko diren neurrien eraginkortasunarekin batera.

**Covid-19ak hazkunde ekonomikoan duen eraginaren neurria** egindako simulazio bakoitza egiteko oinarri bezala hartutako hipotesien arabera da. 2020rako aurreikuspenek erakusten dutenez, Espainiako BPG  $-1,7$  (Ceprede),  $-3$  (Funcas) eta  $-4,1$  (Fedea) bitarteko jaitsiera izango du, eta berrogeialdiko hilabeteko eszenarioetan oinarrituta (martxo-apirilari edo apirilaren 11ari erreferentziatuak, estimazioaren arabera).

|         | Espainia |      | EAE  |
|---------|----------|------|------|
|         | 2020     | 2021 | 2020 |
| Ceprede | -1,7     | --   | -1,6 |
| Funcas  | -3,0     | 2,8  | --   |
| Fedea   | -4,1     | --   | --   |



Fedeak, gainera, BPGren 0,4 puntuko galera gehigarria adierazi du berrogeialdia luzatzen den aste bakoitzeko (Inseeren kalkuluen arabera, Frantziarentzat bi hilabeteko berrogeialdia aurreikusten da, eta -%6ko atzerapena ematen du 2020ko BPGan). 2021ari dagokionez, baliteke BPGa %2,8 errekuperatzea (Funcas).

Eragin-hipotesien tarte hau Standard & Poor's-ek egindakoarekin lerrokatuta egongo litzateke; izan ere, Espainiarentzat %2,1eko jaitsiera eta %3ko susperraldia (2020 eta 2021) adierazten ditu, euste azkarreko kasu batean (hilabete pare bat) eta 2020an Eurogunean %2ko jaitsiera aurreikusten du.

Bestalde, eztabaida dago ea irteera azkarra izango den (V-n), atzeratuko den (U-n) edo atzeraldi sakonago baterako atea izango den, krisi honek herrialdez herrialde izango duen eraginaren dekalajea eta nazioarteko osagaia konbinatzen dituen (L-en). Irteera bakoitzaren formaren gauzatzea egoera horrek bereziki baldintzatzen dituen jardueren pisuaren esku egongo da (turismoa eta garraioa, polikiago hobetuko direnak), eragileen (enpresa eta kontsumitzaileen) gastua eta inbertsioa baldintzatuko duten ekonomia- eta finantza-baliabideen galeraren arabera, eta egoera honen eragina arintzeko abian jarriko diren neurri multzoen eraginkortasunaren arabera.

**Zer dakigu covid-19k euskal ekonomian izango duen eraginaren inguruan?** Gure ekonomiaren izaera irekiak, inguruko ekonomien egoera oso faktore adierazgarria den posizioan jartzen gaitu. Horregatik, munduko ekonomian, garapen bidean dauden ekonomien edo eurogunean uzkuertze handiagoa edo txikiagoa aipatzen duten iragarpenetan azkenean gertatzen den betetze-maila garrantzitsua izango da.

2020rako euskal ekonomiarako lehen estimazio bakarra baino ez dago, Cepredek egindakoa. Aurreikusten duen testuinguruan, urteko BPGen %1,61eko atzerakada esleitzen dio euskal ekonomiari, Espainiako batez bestekoa baino txikiagoa (-%1,7). Beherakada handienak Balear Uharteetakoak (-%2,73) eta Kanariar Uharteetakoak (-%2,10) izango liriteke eta, aldiz, Extremadurakoak (-%1,3) eta Asturiaskoak (-%1,4) baxuenak. Madril (-%1,8) eta Katalunia (-%1,9) tarteko posizioetan egongo liriteke. Kalkuluen arabera, 310.598 lanpostu galduko direla aurreikusten da (lehen aurreikuspena) Estatu osoan, 60 eta 52 mila enplegu Madrilan eta Katalunian, eta 15,5 mila enplegu euskal ekonomian –2019an sortutako enplegu garbiaren antzeko magnitudea–.

Cepredetik adierazten dute *“jaitsiera horien kontzentrazio sektorialak, batez ere Ostalaritzan, Merkataritzan, Garraioan eta Beste zerbitzu pribatu batzuetan, gure kalkuluen arabera, Espainiako eskualde bakoitzak duen espezializazio diferentzialaren mailarekiko modu proportzionalean eragingo du, eta, gainera, beste eskualde batzuetara hedatuko dira, eskualdeko ekonomia bakoitzak gainerako ekonomia autonomikoekin elkar eragiten duen neurrian”*.

Bestalde, martxoaren 16tik 25era bitartean **Euskal Autonomia Erkidegoan erregistratutako langabezia** %8 hazi da; kopuru horrek soldatapeko osagaian izandako enplegu-galera islatzen du, baina jardueraren jaitsiera horrek –neurri handiagoan edo txikiagoan– enplegu autonomoari eragingo lioke, afiliazio osoaren %17a dena.

Eta, azkenik, Espainiako Sare Elektrikoaren datuek erakusten dute, martxoaren 13tik 23ra bitartean, **kontsumo elektrikoa** %10 jaitsi zela Estatuan, 2019ko aldi berarekin alderatuta. Jaitsiera hori kontsumo pribatuaren gorakadaren emaitza da (etxeko egonaldi handiagoa), eta horrek ez ditu konpentsatzen gelditutako jardueretan erregistratutako beherakadak (ostalaritza, elikaduraz kanpoko merkataritza, personentzako zerbitzuak, etab.), eta gainerako jarduerak erregistratutako eragina ere ez, kontsumoa neurri handiagoan edo txikiagoan doitu ahal izan baitzuten.

Argi dago jarduera ekonomikoaren azken murrizketak –urtarrilaren 30ean sartu da indarrean– dagoeneko azaldutako emaitzak baldintzatuko dituela. Izan ere, eta distantziak alde batera utzita, bi krisi oso desberdin direlako eta izango direlako (jatorria, eragindako sektoreak, etab.), **2008ko krisiaren bilakaera erreferentzia izan daiteke** lehen iragarpen horiek irakurtzean eta eskuragarri dauden (oraindik) datu eskasekin.



Hala, EAEko ekonomiak laugarren hiruhilekoan %1,3koa atzerakada<sup>1</sup> izan zuen urte arteko BPGan, 2009ko lehen hiru hiruhilekoetan negatibo mantendu zena, eta urte amaieran bide positibora itzuli zena.

|          | Euskadi A.E. |      |       |        |       |
|----------|--------------|------|-------|--------|-------|
|          | 08-IV        | 09-I | 09-II | 09-III | 09-IV |
| BPG      | -1,3         | -2,5 | -0,9  | -0,1   | 0,4   |
| Enplegua | -0,9         | -1,6 | -1,2  | -0,8   | -0,1  |

BPGan eta enpleguan 2009ko atzerakada %4koa izan zen, eta ez zen positiboa izan 2014ra arte. Kontuan izan behar da krisi honek zerbitzuetan eragin zuzena izanik, eragina automatikoa eta intentsitate handiagoa izango duela enpleguan.

|          | Euskadi A.E. |      |      |      |      |      |
|----------|--------------|------|------|------|------|------|
|          | 2009         | 2010 | 2011 | 2012 | 2013 | 2014 |
| BPG      | -4,1         | 0,7  | 0,3  | -2,0 | -1,7 | 1,6  |
| Enplegua | -4,0         | -1,3 | -0,9 | -3,3 | -2,9 | 0,2  |

Azken finean, covid-19ak ekonomian eta enpleguan izango duen eragina garrantzitsua da eta izango da, eta 2008ko krisian erregistratutakoaren antzekoa izatera iritsi daiteke. Hala ere, ahalik eta txikiena izan dadin lortzeko, ikasitako ikasgaiak izan beharko luke eskumen-esparru guztietatik (fiskal, monetario eta finantzarioetatik) lan koordinatu, ikuspegi integral eta epe ertaineko perspektibarekin hartutako neurrien arintasun, bizkortasun eta eraginkortasunaren menpe egongo dela.

<sup>1</sup> Kontu ekonomikoak eta hiruhileko kontu ekonomikoak (Eustat). BPG: i) kateatutako bolumenaren indizea, ii) hiruhilekoa: urtaroen eta egutegiaren eragina zuzendutako datuak. Enplegua: lanpostuak lanaldi osoaren baliokidetasunean